# TOKIKO AGENDA 21

# ALTZOKO EKINTZA PLANA

2016ko azaroa



## LERRO ESTRATEGIKOEN ZERRENDA

LE.1. ETXEBITZITZA, OINARRIZKO ZERBITZUAK ETA BIZI KALITATEA BERMATU

LE2. HERRITARREN MUGIKORTASUN BEHARRAK IRAUNKORTASUN IRIZPIDEEKIN ASE

LE3. UR/ENERGIA/HONDAKIN ZERBITZUAK HOBETU.

LE4. UDALERRIKO EKONOMIAREN SUSTAPENA ETA DIBERTSIFIKAZIOA LORTU

LE5. BASERRI BIZITZA MANTENDU ETA SUSPERTU, NATURAREN, PAISAIAREN, ONDARE KULTURALAREN ETA HERRI NORTASUNAREN MANTENUAN DUEN GARRANTZIAREKIN UZTARTUZ

LE6. UDALERRIKO NATUR BALIABIDEAK ETA ONDARE KULTURALA ZAINDU

LE7. UDALERRIKO JARDUERA EKONOMIKOEN INGURUMEN ERAGINA MURRIZTU

LE8. UDALERRIKO HIRIGINTZAREN PLANGINTZA ETA ARAUDIA IRAUNKORTASUN IRIZPIDEEKIN LANDU

LE9. UDAL KUDEAKETA HOBETU ETA HERRI KOHESIOA SUSTATU

# HELBURUAK

LE1. ETXEBITZITZA, OINARRIZKO ZERBITZUAK ETA BIZI KALITATEA BERMATU

BIZTANLERIA

- Biztanle kopurua mantendu.
- Herriko gazteak herrian geratzea lortu.
- Biztanleriaren berpizkunde tasa azken urteetako erritmo berean mantendu.
- Lo-herri bihurtzea ekidin.

ETXEBIZITZA

- Herriak zenbat eta nola hazi behar duen herritarren nahietara egokitu.
- Udalak duen lursail kopuru baxuak udalaren etxebizitza politika baldintzatzea saihestu.
- Baserri hutsak etxebizitza bihurtzea sustatu.
- Gazteen etxebizitza beharrak aztertu eta irtenbide bat ematen saiatu.

OINARRIZKO ZERBITZUAK

- Herritarren bizi kalitatea hobetu eta aldi berean, ekonomikoki bideragarriak diren oinarrizko zerbitzuak bultzatu.
- Auzoek herrigunearen aldean dituzten gabeziak gainditu.

HEZKUNTZA

- Hezkuntza zerbitzuen hornidurak (jangela, haurtzaindegia, eskolaz kanpoko ekintzak, eskola kirola, zaintza zerbitzua, etab.) herritarren beharretara egokitu.
- Herriko haurtzaindegia mantendu.
- Eskola garraio zerbitzua mantendu.

OSASUNA

- Egungo osasun zerbitzua herritarren beharretara egokitzen jarraitu.

GIZARTE ZERBITZUAK

- Gizarte zerbitzuen inguruko informazioa herritar guztiei banatzen jarraitu.
- Gizarte zerbitzuak herritarren beharretara egokitzen jarraitu.

KULTUR ONDAREA, ETA KULTUR, KIROL ETA AISIALDIRAKO EKIPAMENDUA ETA JARDUERAK

- Gazten beharretara egokitutako lokala mantendu eta kudeaketa egokia bermatu.
- Kultur eta aisialdirako ekipamendua herritarren beharretara egokitu.
- Kultur eta aisialdirako eskaintza herritarren beharretara egokitu.
- Kirol eskakizunak herritarren beharretara egokitu.

HIZKUNTZA - EUSKARA

- Altzo, euskararen arnasgunearen izaera mantendu eta indartu.

- Egungo euskararen erabilera eta kalitatea mantendu.

GIZA BALOREAK

- Gizabide baloreak errespetatu

LE2. HERRITARREN MUGIKORTASUN BEHARRAK IRAUNKORTASUN IRIZPIDEEKIN ASE

MUGIKORTASUNA ETA GARRAIOA

- Herri bideak berreskuratu eta mantendu.
- Oinezko bideak garbi eta egoera onean mantendu.
- Gaizki aparkatzeko ohiturei aurre egin.
- Plaza zeharkatzen duen errepidean abiadura murriztu segurtasuna bermatuz.
- Errepidean arrisku egoerak saihestu.
- Udalerri barruko irisgarritasuna hobetu.
- Ohitura osasuntsuak bultzatu (bizikletaren erabilera bultzatu, oinezkoei lehentasuna eman, etab.)

LE3. UR/ENERGIA/HONDAKIN ZERBITZUAK HOBETU.

URA

- Ur hornidura egokia ziurtatu.
- Ur kontsumo eraginkorra bultzatu.
- Ur saneamendu egokia ziurtatu.
- Ur kudeaketa eredu egokia bermatu.

ENERGIA

- Energia hornidura egokia ziurtatu.
- Eraginkortasun energetikoa eta energia iturri berriztagarriak sustatu herrian eta udal eraikinetan.

HONDAKINAK

- Hondakinen ekoizpen tasa txikitzea eta birziklapen tasa handitzea sustatu.
- Konpostaren bidez kudeatzen den hondakin organikoaren tasa handitu.
- Hondakinen kudeaketa sistema hobetu.
- Nekazaritza eta abeltzaintzako hondakinen kudeaketa egokia ziurtatu.
- Hondakinen kudeaketa egokiaren inguruko informazioa helarazi herritarrei.
- Industriguneetako hondakinen kudeaketa egokia bermatu.

LE4. UDALERRIKO EKONOMIAREN SUSTAPENA ETA DIBERTSIFIKAZIOA LORTU

JARDUERA EKONOMIKOA

- Kalitatezko ekonomia sustatu eta dibertsifikazioa lortu.
- Natur baliabideak eta ondare kulturala baliabide turistiko izateko moduak bilatu.
- Herriko taberna eta bertako produktuentzako lokala irekitzeko aukerak aztertu.

LE5. BASERRI BIZITZA MANTENDU ETA SUSPERTU, NATURAREN, PAISAIAREN, ONDARE KULTURALAREN ETA HERRI NORTASUNAREN MANTENUAN DUEN GARRANTZIAREKIN UZTARTUZ

NEKAZAL LURRAK

- Nekazal lurrak babestu

BASERRITARREN EKONOMIA

- Lehen sektorea indartu.
- Belaunaldien ordezkapena eta baserritar gazteen ezarpena bultzatu.
- Labeldun produktuak/ produktu ekologikoak/ kalitatearekin lorturiko ziurtagiridun produktuen ekoizpena bultzatu.

BASERRITARREN BIZI BALDINTZAK

- Baserrietan bizi diren pertsonen bizi baldintzak hobetu.

BASOAK ETA PAISAIA

- Baserritarren lanak errekonozimendua izatea lortu.
- Nekazaritza eta abeltzaintzak herrian paisaiaren eta nortasunaren mantenuan duen eragina baloratua izatea lortu.
- Paisaiaren kalitatea mantendu.
- Bertako landare espezieen presentzia indartu.
- Basoen kudeaketarako biomasaren aprobetxamendu aukerak aztertu, beti ere autokontsumoari begira.

LE6. UDALERRIKO NATUR BALIABIDEAK ETA ONDARE KULTURALA ZAINDU

NATUR BALIABIDEAK ETA ONDAREA

- Natur baliabideak eta ondarea mantendu.
- Natur baliabideak eta ondarea ezagutzera eman.
- Natur baliabideak eta ondare kulturala baliabide turistiko moduan aprobetxatu.

LE7. UDALERRIKO JARDUERA EKONOMIKOEN INGURUMEN ERAGINA MURRIZTU

BASO USTIAPENAK

- Basoak garbi manten daitezela sustatu.
- Baso-berriztatzeetan landareen aniztasuna lortu eta bertako espezieen landaketak bultzatu.
- Zertifikatutako basoak bultzatu.
- Baso ustiapenek eragin ditzaketen kalteak saihesten jarraitu.

INDUSTRIA

- Enpresek sortzen dituzten ingurumen inpaktuen kontrola eta jarraipena burutu.
- Enpresa jardueren kontrola burutu.
- Enpresen ingurumen zertifikazioak bultzatu.

LE8. UDALERRIKO HIRIGINTZAREN PLANGINTZA ETA ARAUDIA IRAUNKORTASUN IRIZPIDEEKIN LANDU

LURZORUAREN KALIFIKAZIOA ETA KLASIFIKAZIOA

- Lurzoru hiritarrezinak udalerrian duen hedapena mantendu.

LE9. UDAL KUDEAKETA HOBETU ETA HERRI KOHESIOA SUSTATU

ARRISKUEN KUDEAKETA

- Arriskuen udal kudeaketa hobetu.
- Suteen aurreko prebentzioa eta baliabideak indartu.

UDAL KUDEAKETA OROKORRA

- Udal kudeaketa orokorra hobetu.

UDAL INGURUMEN KUDEAKETA

- Iraunkortasun irizpideak udal kudeaketan txertatu

UDAL ONDAREAREN KUDEAKETA

- Udal ondarearen kudeaketa hobetu

HERRITARREN ETA UDALAREN ARTEKO KOMUNIKAZIOA

- Herritarren eta udalaren arteko komunikazioa hobetzen jarraitu.

PARTE-HARTZEA ETA HERRI GIROA

- Antolatzen diren ekintzetan izaten den parte-hartzea mantendu eta ahal den neurrian hobetu.
- Herri giro egokia mantendu.
- Kanpotik herrira bizitzera datozenen integrazioa bultzatzen jarraitu.

## EKINTZA PLANA

| EKINTZAK | | |
|---|---|---|
| **LE1. ETXEBIZITZA, OINARRIZKO ZERBITZUAK ETA BIZI KALITATEA BERMATU** | | |
| | **P.1.1. UDALERRIAN DAUDEN BEHARREN ARABERAKO ETXEBIZITZA POLITIKA GARATZEKO PROGRAMA** | |
| | | E.1.1.1. Herritarrek etorkizunera begira herriak zenbat eta nola hazi behar duen, etxebizitzak eraikitzeko formulak, eta abar hausnartzeko/eztabaidatzeko eta etxebizitzen itxura finkatzeko moduak bilatu. |
| | | E.1.1.2. Altzo Muinon ez ezik, auzoetan ere etxebizitzak eraikitzeko aukera aztertu. |
| | | E.1.1.3. Etxe berriak egitean, lehentasuna herritarrei ematen jarraitu. |
| | | E.1.1.4. Etxe berriak batez ere beharra duten taldeei, hau da, gazteei, familia duten pertsonei, eta adinduei zuzentzeko moduak bilatu. Hurrengo urteetan gazteek izango dituzten beharrak ezagutzeko diagnosia egin. |
| | | E.1.1.5. Etxe edo baserri hutsak hartzearen aukera jorratzeko moduak bilatu. |
| | | E.1.1.6. Udalak sustatutako etxebizitzak alokairuan ematearen aukerak aztertu. |
| | | E. 1.1.7. Etxebizitza hutsen zentsua egin. |
| | | E.1.1.8. Baserriak etxebizitza bezala mantendu eta moldatzeko aukerak ematen jarraitu Hirigintzako Planeamenduetan, baserri bakoitzean dagokion etxebizitza kopurua baimenduz. |
| | **P.1.2. UDALERRIAN DAUDEN BEHARREN ARABERAKO OINARRIZKO ZERBITZUAK LANTZEKO PROGRAMA** | |
| | | E.1.2.1. Herrian edozein zerbitzu jarri aurretik errentagarria eta bideragarria den aztertu (udalak, bilera irekia, inkesta…) |
| | | E.1.2.2. Auzoetan ere Altzo Muinon ezarritako beste zerbitzu batzuk jartzea aztertu. (zuntz optikoa, etab.) |
| | | E.1.2.3. Eskualde mailan amankomunak izan daitezkeen zerbitzuak sustatu. |

| EKINTZAK | | |
|---|---|---|
| | **P.1.3. UDALERRIAN DAUDEN BEHARREN ARABERA, HEZKUNTZA ZERBITZUAK SORTU ETA GARATZEKO PROGRAMA** | |
| | | E.1.3.1. Eskola garraio zerbitzua hobetu eta bermatu. |
| | | E.1.3.2. Herriko haurtzaindegia mantendu. |
| | | E.1.3.3. Hezkuntza zerbitzuen hornidurak (jangela, zaintza zerbitzua, eskola kirola, eskolaz kanpoko ekintzak, etab.) herritarren beharretara egokitu. |
| | | E.1.3.4. Eskola Agenda 21 Programan parte hartu. |
| | | E.1.3.5. Ikastetxeko atarian aterpea eraiki. |
| | **P.1.4. UDALERRIKO OSASUN ETA GIZARTE ZERBITZUETAKO BALDINTZAK BEHARREI EGOKITU ETA GARATZEKO PROGRAMA** | |
| | | E.1.4.1. Azpieskualdeari zerbitzu emango dion eguneko zentroa Alegiako Frankoni eraikinean kokatu. |
| | | E.1.4.2. Frankoni eraikinean etxe tutelatua mantendu. |
| | | E.1.4.3. Gizarte zerbitzuetako batzorde bat sortu, herriko eragile, udal zinegotzi eta gizarte langileak koordinatuta. |
| | | E.1.4.4. Gaur egun gizarte zerbitzuek eskaintzen dituzten zerbitzuei buruzko informazioa eskaintzen jarraitu. |
| | | E.1.4.5. Gizarte zerbitzuen arloan zerbitzu komunitarioa eskaintzeko hitzaldiak eta saioak antolatu. |
| | | E.1.4.6. Urtero antolatzen diren jubilatu eguna eta irteera mantendu. |
| | | E.1.4.7. Zonaldeko larrialdiko pisuaren beharra eta erabileraren inguruko azterketa burutu. |
| | **P.1.5. UDALERRIKO BEHARRETARA EGOKITUTAKO AISIALDIA, KULTURA ETA KIROL ZERBITZUAK** | |

| | | |
|---|---|---|
| **EKINTZAK** | | |
| | **ESKAINTZEKO PROGRAMA** | |
| | | E.1.5.1. Nagusientzako jarduera edo ekintza desberdinak antolatzen jarraitu. |
| | | E.1.5.2. Atseden toki bat edo beste egiteko aukerak aztertu. |
| | | E.1.5.3. Kultur-Etxea egokitu multimedia gela bezala ere erabili ahal izateko. |
| | | E.1.5.4. Gazteen beharretara egokitutako lokala mantendu eta kudeaketa egokia bermatu. |
| | | E.1.5.5. Altzoko bazterrak ezagutzeko noizean behin mendi irteerak antolatu. |
| | | E.1.5.6. Aisia, Kultura eta kirol zerbitzuak beharretara egokitu. |
| | | E.1.5.7. Haur parkea prestatu Amategi aldean. |
| | | E.1.5.8. Frontoian harmailak modu egoki batean jartzeko aukerak aztertu. |
| | **P.1.6. UDALERRIAN HIZKUNTZAREN BIZIKIDETASUNA BERMATZEKO PROGRAMA** | |
| | | E.1.6.1. Herrian integratzeko euskarak duen garrantziaz kontzientziatzeko dauden bideak zeintzuk diren aditzera eman. |
| | | E.1.6.2. Euskara ikasteko ikastaroak herrian bertan doan eskaini. |
| | | E.1.6.3. Gertuen dauden euskaltegien inguruko informazioa banatzen jarraitu: prezioak, ordutegiak, mailak, etab. |
| | | E.1.6.4. Udal kontratazioetan balorazio irizpideetan euskara kontuan izan. |
| | | E.1.6.5. Euskararekin erlazionaturiko eragileekin urtean zehar lankidetza mantendu eta arnasgunearen eguna antolatu. |
| | **P.1.7. UDALERRIAN BERDINTASUNA ETA BIZIKIDETZA BERMATZEKO PROGRAMA** | |
| | | E.1.7.1. Udal erabaki eta jardueretan berdintasunaren ikuspuntua kontutan hartu eta aplikatu. |
| | | E.1.7.2. Berdintasuna eta parekidetasunari buruzko ikastaroak eta baliabideak eskaini herritarrei. |

| EKINTZAK | | |
|---|---|---|
| | | E.1.7.3. Berdinbidea programa landu. Eskola eta gazteekin berdintasuna eta parekidetasun gaiak landu. |
| | | E.1.7.4. Herritarrekin genero ikuspegiaren gaia landu, besteak beste, indarkeria matxistaren arazoa saihesteko. |
| | | E.1.7.5. Ehiztariak etxe inguruetan tiroka ez ibiltzeko moduak bilatu. |
| | | E.1.7.6. Txakurrak aske ez ibiltzeko moduak bilatu. |
| **LE2. HERRITARREN MUGIKORTASUN BEHARRAK IRAUNKORTASUN IRIZPIDEEKIN ASE** | | |
| | **P.2.1. BIDE SAREA HOBETZEKO PROGRAMA** | |
| | | E.2.1.1. Udalaren errepide sarean mantentze lanak egin |
| | | E.2.1.2. Altzo Muiño eta Altzo Azpiko errepidea zabaltzeko Foru Aldundiarekin harremanetan jarri. |
| | | E.2.1.3. Foru Aldundiak eskumena duen plazatik igarotzen den errepidean abiadura murrizteko neurriak jarri segurtasuna bermatzeko. |
| | | E.2.1.4. Plaza eta eskola bitartean oinezkoen lehentasuna bermatzeko moduak bilatu. |
| | **P.2.2. AUTOMOBILAREN ERABILERA ARRAZIONALA BULTZATZEKO PROGRAMA** | |
| | | E.2.2.1. Mugikortasun iraunkorraren inguruan heziketa kanpainak egin. Ohitura osasuntsuak bultzatu oinezkoei lehentasuna emanez, bizikletaren erabilera bultzatuz, etab. |
| | | E.2.2.2. Inguruko herrietara oinez joateko lasterbideak berreskuratu. |
| | | E.2.2.3. Plazan ez aparkatzeko, debekuaz gain, beste modu batzuk bilatu. |
| | | E.2.2.4. Eskola garraioa bermatu eta zerbitzuan udalaz gain beste erakundeak ere inplikatu. |
| | | E.2.2.5. Auto elektrikoaren erabilera bultzatu hobari fiskalen bidez. |
| | | E.2.2.6. Auto elektrikoak kargatzeko puntuaren bideragarritasun azterketa egin. |

| EKINTZAK | | |
|---|---|---|
| | **P.2.3. GARRAIO PUBLIKOA HOBETU ETA BERONEN ERABILERA SUSTATZEKO PROGRAMA** | |
| | | E.2.3.1. Garraio publikoaren maiztasuna areagotu eta herritarren beharretara egokitzeko herritarren beharrak zeintzuk diren aztertu. |
| | | E.2.3.2. Garraio publikoaren zerbitzua ezagutarazi eta erabilera sustatzeko moduak bilatu. |
| | **P.2.4. UDALERRIAREN IRISGARRITASUNA BERMATZEKO PROGRAMA** | |
| | | E.2.4.1. Izozteak ekiditeko udalak herritarren eskura gatza jartzearen zerbitzua mantendu. |
| | | E.2.4.2. Udalerriko eta udal eraikinetako irisgarritasuna hobetu. Irisgarritasun plana bete. |
| **LE3. UR/ENERGIA/HONDAKIN ZERBITZUAK HOBETU** | | |
| | **P.3.1. UR HORNIKUNTZA ETA ARAZKETA SISTEMAK HOBETU ETA UR KONTSUMOA MURRIZTU ETA ERABILERA ERAGINKORRAGOA BULTZATZEKO PROGRAMA** | |
| | | E.3.1.1. Ura aurrezteko neurriak bilatu. |
| | | E.3.1.2. Herriguneko saneamendua egokitzeko jarraipena egin Ur Kontsortzioari. |
| | | E.3.1.3. Herriarentzako ur kudeaketa eredu egokiena zein den aztertu eta bermatu. |
| | **P.3.2. ENERGIA HORNIKUNTZA BERMATU ETA HOBETZEKO PROGRAMA** | |
| | | E.3.2.1. Pobrezia energetiko egoeran dauden familiak identifikatu. |
| | | E.3.2.2. Pobrezia energetikoan dauden familiei lagundu. |
| | | E.3.2.3. Herritarrei energia hornitzaile ezberdinei buruzko eta beraien zerbitzuei buruzko informazioa eman. |
| | **P.3.2. ENERGIA HORNIKUNTZA SISTEMA HOBETZEKO PROGRAMA** | |
| | | E.3.2.1. Argindar eta gas instalazioen gabeziak ezagutu eta hobetzeko neurriak hartu. |

| | | |
|---|---|---|
| **EKINTZAK** | | |
| | **P.3.3. ENERGIAREN KONTSUMO ERAGINKORRA ETA ENERGIA BERRIZTAGARRIAK SUSTATZEKO PROGRAMA** | |
| | | E.3.3.1. Udal eraikinetan eta herrian energia berriztagarriak jartzeko aukerak aztertu. |
| | | E.3.3.2. Udal eraikinetan energia kontsumoa murrizteko aukerak aztertu eta neurriak hartu. |
| | | E.3.3.3. Argiteria publikoan energia eraginkortasuna hobetzeko neurriak hartu. |
| | | E.3.3.4. Lehenengo sektorearen baitan energia berriztagarrien garatzea lagundu. |
| | | E.3.3.5. Herritarrei energia berriztagarriei eta kontsumo eraginkorrari buruzko informazioa eman. |
| | | E.3.3.6. Baso biomasaren erabilerari buruzko azterketa burutu. |
| | **P.3.4. HIRI HONDAKINEN EKOIZPENA MURRIZTU ETA KUDEAKETA HOBETZEKO PROGRAMA** | |
| | | E.3.4.1. Herritarrek konpostagailua gehiago erabiltzeko moduak bilatu eta formazioa eskaini. |
| | | E.3.4.2. Hondakin edukiontzien inpaktu bisuala murrizteko neurriak hartu. |
| | | E.3.4.3. Hondakinen gaikako sailkapena hobetzeko formazioa eskaini herritarrei. |
| | | E.3.4.4. Lorategietako belarra motu ondoren behar den lekuan bota eta ongarri bezala erabiltzeko herritarrak sentsibilizatzeko moduak bilatu. |
| | | E.3.4.5. Mankomunitateari edukiontzi eta zaborrontzien kopurua gehitzeko eskaera egin beharren arabera. |
| | | E.3.4.6. Konposta txikitzeko zerbitzua mantendu eta ezagutarazi. |
| | | E.3.4.7. Eskualde mailako zabor bilketa amankomunatua mantendu eta hobetu. |
| | | E.3.4.8. Enpresetako hondakin arriskutsuen kudeaketarako Gipuzkoako Merkataritza Bazkundearekin Mankomunitateak duen hitzarmena mantendu. |
| | **P.3.5. LEHEN SEKTOREKO HONDAKINEN KUDEAKETA HOBETZEKO PROGRAMA** | |
| | | E.3.5.1. Silo bolen plastikoak biltzeko zerbitzua mantendu eta egokitu. |

| EKINTZAK | | |
|---|---|---|
| | | E.3.5.2. Purinaren, baserrietako zabor arriskutsuen, hildako animalien, eta abarren kudeaketa iraunkor bat egiteko egiturak eta baliabideak bultzatu. |
| **LE4. UDALERRIKO EKONOMIAREN SUSTAPENA ETA DIBERTSIFIKAZIOA LORTU** | | |
| | **P.4.1. EKONOMIAREN SUSTAPENA ETA DIBERTSIFIKAZIOA BULTZATZEKO PROGRAMA** | |
| | | E.4.1.1. Herrian lanpostu berriak sortzeko moduak bilatu, modu orekatu batean. |
| | | E.4.1.2. Herriko industriak eta industriguneak zenbat eta nola hazi behar duten gaiaren inguruan hausnarketa/eztabaida ireki udala, herritarrak eta herriko enpresen artean. |
| | | E.4.1.3. Industria berriak eraikitzeko baimena eman aurretik herritarren iritzia kontuan hartzeko moduak bilatu. |
| | | E.4.1.4. Udalak eskaintzen dituen postuetan herritarrei lehentasuna eman. |
| | | E.4.1.5. Herriko espresa handien lan eskaintze berrietan perfilaren arabera herritarrek lehentasuna izateko akordioa mantendu. |
| | | E.4.1.6. Herriko taberna edo herri ostatua eta bertako produktuentzako lokala irekitzeko aukerak aztertu. |
| | | E.4.1.7. Ekimen berritzaileak erakarri landa eremura eta hauek jasotzeko guneak prestatu. |
| | | E.4.1.8. Udalerriko ondare kulturala balorean jarri eta turismoa erakartzeko egiturak prestatu. (Altzoko Handia, Imaz bertsolaria, ibilbideak, interpretazio zentroa, etab.) |
| **LE5. BASERRI BIZITZA MANTENDU ETA SUSPERTU, NATURAREN, PAISAIAREN, ONDARE KULTURALAREN ETA HERRI NORTASUNAREN MANTENUAN DUEN GARRANTZIAREKIN UZTARTUZ.** | | |
| | **P.5.1. NEKAZAL LURRAK BABESTEKO PROGRAMA** | |
| | | E.5.1.1. Nekazaritza ekologikoa eta lurrari lotutako nekazaritza lehentsi. |

| EKINTZAK | | |
|---|---|---|
| | | E.5.1.2. Erabili gabeko edo abandonatutako lurrak nekazaritzarako bideratzeko neurriak martxan jarri. |
| | **P.5.2. BASERRIAREN EKONOMIA SUSPERTZEKO PROGRAMA** | |
| | | E.5.2.1. Belaunaldi berriak bermatzeko moduak bilatu. |
| | | E.5.2.2. Egitasmo berritzaileak ezagutzera eman. |
| | | E.5.2.3. Ingurumena, paisaia, landa kultura, etab. nekazaritzako produktuen balio erantsi gisa erabiltzeko moduak aztertu. |
| | **P.5.3. BASERRITARREN BIZI BALDINTZAK HOBETZEKO PROGRAMA** | |
| | | E.5.3.1. Bideetako baserri seinaleak konpondu edo berritu. |
| | | E.5.3.2. Bizi kalitatea hobetzen laguntzen duten zerbitzuen garapena bultzatu. |
| | **P.5.4. BASOAK GARBI MANTENTZEKO PROGRAMA** | |
| | | E.5.4.1. Udalarenak diren basoak garbi mantentzen jarraitu. |
| | | E.5.4.2. Herrian baso publiko gehiago izateko udalak basoak erosi. |
| | **P.5.5. PAISAIA BABESTEKO PROGRAMA** | |
| | | E.5.5.1. Udalerriko baso naturalak mantentzeko moduak bilatu. |
| | | E.5.5.2. Degradatutako lurrak lehengoratzeko moduak bilatu. (Meategiak, etab.) |
| | | E.5.5.3. Nekazaritza eta abeltzaintza jarduerei diru-laguntzak bilatzen saiatu, landazabalak mantentzen jarri ditzaten. |
| **LE6. UDALERRIKO NATUR BALIABIDEAK ETA ONDARE KULTURALA ZAINDU** | | |
| | **P.6.1. NATUR BALIABIDEAK ETA ONDAREA ZAINTZEKO PROGRAMA** | |

| EKINTZAK | | |
|---|---|---|
| | | E.6.1.1. Udalaren lurretan eta lur pribatuetan bertako zuhaitz espezieak landatzea bultzatu. |
| | | E.6.1.2. Landazabalak mantentzeko neurriak hartu. |
| | **P.6.2. ONDARE KULTURALA ZAINTZEKO PROGRAMA** | |
| | | E.6.2.1. Ondare megalitikoa berriro seinaleztatu eta ezagutarazi. |
| | | E.6.2.2. Ondare kulturala zaintzeko edo birgaitzeko dauden laguntzen inguruko informazioa zabaldu. |
| **LE7. UDALERRIKO JARDUERA EKONOMIKOEN INGURUMEN ERAGINA MURRIZTU** | | |
| | **P.7.1. JARDUERA EKONOMIKOEK SORTZEN DITUZTEN INGURUMEN INPAKTUEN KONTROLA ETA JARRAIPENA BURUTZEKO PROGRAMA** | |
| | | E.7.1.1. Harrobiari jarraipena egin. Jardueratik eratorritako ingurumen inpaktuak murrizteko ekintzei buruzko informazioa jaso eta neurri zuzentzaileak betetzen direla egiaztatu. |
| | | E.7.1.2. Zerrategiari jarraipena egin. |
| | | E.7.1.3. Aktibitate jardueren jarraipena egin. |
| **LE8. UDALERRIKO HIRIGINTZAREN PLANGINTZA ETA ARAUDIA IRAUNKORTASUN IRIZPIDEEKIN LANDU** | | |
| | **P.8.1. LURZORU HIRITARREZINAREN HEDAPENA MANTENTZEKO PROGRAMA.** | |
| | | E.8.1. Plan Orokorrean landa lurrak babestu. |
| **LE9. UDAL KUDEAKETA HOBETU ETA HERRI KOHESIOA SUSTATU** | | |
| | **P.9.1. ARRISKUEN ANALISIA ETA KUDEAKETA HOBETZEKO PROGRAMA** | |
| | | E.9.1.1. Ureztatzeko ahoetan mangeraz hornituta dauden kutxak mantendu eta egokitu. |
| | **P.9.2. UDAL KUDEAKETA HOBETZEKO PROGRAMA** | |

| EKINTZAK | | |
|---|---|---|
| | | P.9.2.1. Eskualdeko Garapen Agentzia, mankomunitate eta erakundeekin lankidetza mantendu eta antolatzen diren batzordeetan parte hartu. |
| | **P.9.3. HERRITARREN ETA UDALAREN ARTEKO KOMUNIKAZIOA BULTZATZEKO PROGRAMA** | |
| | | E.9.3.1. Udaletik egiten diren komunikazioak egiten jarraitu. |
| | | E.9.3.2. Udalak esku artean dauden gaien arabera herritarrekin batera herri bilerak burutu. |
| | **P.9.4. PARTEHARTZEA ETA HERRI-GIROA SUSTATZEO PROGRAMA** | |
| | | E.9.4.1. Gaikako Batzordeak eta udal zerrenden inguruan belaunaldi desberdinen arteko hartu-emana gehiago lantzeko moduak bilatu. |
| | | E.9.4.2. Herri giroa sustatzeko moduak bilatu. |